

Pettiarrean pürü arra jiten direlarik ez dütüzü, orai, etxon-  
doala edo anaie baten etxera erretiratzan beren alde planta-  
tzen dütüzü.

## ANALISI OROKORRA

### 1. Etxe-sendaketa

Nahiz hogeitasei urteetako neskatila batek bazekien orai-  
no etxe-sendagintzaz zerbait, ageri da jakituri horiek galtze-  
ra doatzila ta segurantzak sekulako kalteak egin dizkiola,  
orain edozein, min, gaitz edo ezineria txipiarentzat ere sen-  
dagilea deitzen baita.

Halere gizarte mailak bereizi behar dira, ezen jendea  
eskolatuago eta ez du nola nahi medikua deitzen, eta medi-  
kuez kanpo medikuntza eztiak onartzen ditu. Egia esan ez da  
ez langile, ez nekazari asko ikusten homeopatia ta akun-  
punktura sailetan. Gero modak ere badira, herri-sendakun-  
tzaren atal bat sendotu dezakena eta farmazeutiko den  
Larrègle jaunak esan digu nola baratzetan, bide ertzetan  
sortzen diren landareak farmazietan erosten diren. Tisanen  
erabilera hori eraberritua eta kaletik etorria ari da pixkanaka  
baserrira itzultzen, halaxe ez da etenik erabileran nahiz izan  
den askotan etena ezagutzan, aintziña berek egiten, biltzen,  
legortzen baitzituzten belarrak, laborari etxeetan.

Euskal Herritik kanpo ibili diren sendagileek diote  
Frantzia behera non nahi, sasi-erremedio eta errezeta  
gehiago dagoela Zuberoan baino eta etxeetan argizai bene-  
dikatu eta uraz kanpo ez dela otoitzik erabiltzen sendaketak  
egiteko (hori petrikilloek egiten dute)

### Urak et iturriak.

Aurretik erran bezala, besterik ibili baita lan hortan gure  
aurretik eta denbora berean talde bat hortan ari, nire ekarpe-  
na izan da, etnologiaren aldetik galtze edo berritze delakoan  
aipatzea.

Gutti edo aski Gamereko urak bainu bezala ez dira gehia-  
go erabiltzen, bainutegia jatetxea eta famatua baita bestalde;  
baina Ahüzkiko urak berpiztu dira arrazoin askorekin Irratitik  
bildu eta egunkari batetik hartutakoek darakusatenez, lehe-  
nik artzain jai ederra egiten delako Andere Dena Mari egune-  
an, bigarrenik han zeuden lau etxe ta etxanoak eroriak izan  
arren, ostaturain berri batek hotela egin du eta Zuberoako  
sindikatak iturria konpondu. Ur hori giltzurrintzat ona da;  
jendeek leku berean edaten dute eta jerrikanetan eramaten.

Zuberoako sindikatak Leixtarreko Jon Dane Johane eta  
Mauleko Jon Dane Petiri iturriak berritu dituzte, nahiz ez  
diren osasunerako hanbat erabiltzen.

Ixkilima iturria, Santa Grazikoa eta bere pagan ohitura  
kontatu digu Allande Elixagarai-ek gauaz hara joan behar  
baita, jenderik ez eta batikbat gaturik topatu gabe, gero ixki-  
lima (buruorratza) urera botatu.

Iturriekin eta osasun urekin bukatzeko Zuberoako bede-  
ratzi iturri nagusien berri ematen dugu.

### 4. Apotekari batekin hizketan

Gure farmazia gizona euskalduna da, beti euskaraz ari  
dena, jendeekin, ez aspaldi jubilatua, maiz Atarratzeko karri-  
ketan paseatzen ikusten da. Berak dionez eta medikuntza

eztiak, sasi-sendaketak aipatzen diozkadanean, ez du maila-  
katzerik egiten, fakultateko sendaketekin

1. Denetan osasunaz baino diruaz arduratzen diren "senda-  
tzaileak" ugari direla, orain.
2. Sendakuntza eztiak baldin ez badute gaitzetan eraginik  
ez dute jendea pozoindatzen.
3. Asko estimatzen ditu ezur zuzentzaileak eta uste du, pla-  
cebo-ren moduan, larru sendatzaileen komediek gaixoe-  
tan eragina dutela.
4. Berak uste du sendakuntza eztiak modan direlako, ba-  
tzuk baratari eta lapur izan arren, laisterregi eta azalkiegi  
ikasitakoekin kalte egin lezaketela.
5. Ez du uste Homeopatia, placebo baino gehiago denik  
"uraren memoria" probatu arte.
6. Sendagailu gehiegi hartzearen kalteak aipatzen ditu.
7. Uztaritzeko petrikilloak, izter arteko ekzema, eta zango  
bizkarrean (azalean) beste min bat galerazi zizkion, baina  
eman zituen pomadak, aspaldiko errezetak ziren ez sor-  
gin erremedio (milgorra, sufre, iodalkol). Bere balorape-  
nean bazter sendakuntza guztiak mail berean ipintzen  
ditu "sendotzen dütten ber".
8. Adibide batekin azpimarratzen du jendeen gaitzen eza-  
gutzeko, aurretik zer lan egiten duten, nola bizi diren gal-  
detu behar zaïete: lanak sor baidezakete, nerbiotako  
larruetako minak, baita naski biriketakoak ere, errautseen  
bidez, irin eta zahien bidez.
9. Bere garaian higieñez arduratu eginda aholkuak emanaz  
eta urak kontrolatuz.

Gorotzez (zimaurrez) eta lurrez kutsatu janarien eta esku  
zikinen bildur handia zeukaten aintziña ere.

### 5. Medikuren salaurrean.

Hor salaurrean bakarrik zerbait ikasi dut sendagile horrek  
ezezkoa eman baitu nere galdeketeri egun hartan denborarik  
ezaz eta geroago egun bat hitzartu ondoren, alferretan era-  
karri.

Sala hortan gehienik aipatzen zena, zen hain gazte gutti  
izan eta ixtripuetan bizia galtzen dutela; gero alargunsten  
(andere-alargunen) depresioak aipatu ziren eta nola mediku  
batzuek sendagailuz eta loeragingailuz emazteak zozotzen  
eta gaixotzenago dituzten, erremedioak utzita sendotzen  
direlarik.

### 6. Mediki batekin hizketan.

Remi Akozeberri gizon gazteago hunek, borontate onez  
inardetsi dit; nahiz ez duten utzi Zuberoan lan egitera, eta  
agian akupunktura egiten duelako, Oloronen Euskal Herriko  
mugan ari da lanean, baina gaixoen erdiaz goiti euskaldunak  
ditu. Barearen okerduraz eta Urberoez idatzi egin du.

- 6.1. Sendakuntza eztiatara itzultzen da jendea, seguran-  
tzean "dohan-itxurak" sendagailu gehiegiren hartzera  
eroan ondoan.
- 6.2. Ez da bakarrik gehiegi hartzen dutelako baina batzutan  
nola nahi, eta sendagailu zaharkituak eta zaharrak,  
gaitza berriro agertzen denean erabiliz, pozoatzen dire-  
la polliki polliki.
- 6.3. Beretzat sendakuntza eztiak, gaur, fakultatetan batzu-  
tan sendagileek ikasten dituztenak dira.

- 6.4. Gure sendagilea ez da konturatzen sasi-sendagileen edo herri-sendagileen teknikak "eztiak" direla, eskuen gainean jartzea, otoitzak, ezurren zuzentzea. Hemen ikusten da aintziñako auzia zela legez kanpoko sendakuntzarena, aldekoak eta aurkakoak zirelarik sendagileen artean orain badirudi sendagile gazteagoak ez direla gauza horietaz axolatzen; gainera berak praktikatzen duen homeopatia, sendagile eta gaixo batzuentzat "sorgin-sendakuntza" da, batzutan gerri-sendakuntza baino gaizkiago ikusia, erremedio sendoen zale direnen artean.
- 6.5. Homeopatiaren indarra probatzeko, haur txipi, arrazoin gabeko bat, senda dezakeala, gaineratzen du. Sendagile horrek uste du, eta alopatia egileek ere batzutan, sendagailuak oinazea kentzen duela, baina mina gehienetan ez sendotzen. Gero, bestalde, askotan homeopatia ta alopatiarik gabe, berez senda ditakeala gaitz bat aitortzen du. Berak dionez akupunkturaz eta homeopatiaraz gorputza bera da gotortzen, sendoagotzen.
- 6.6. Larru-sendatzaile petrikillo baten gana ibili da, haurtzaroan txingola (usagre) minaren sendarazteko, berak bizkarrean garraiatzeko erabilka ematen du ta gurekin dagoen gure lehengusu Allande Elixagaraiek, argizaia-ekin nola egin dion, bere amonak egiten zuelako, formula esanaz.
- 6.7. Oso zuhurra da gure sendagilea: fitoterapia ikasi ez duelako ez du erabiltzen, oligoterapia bai.
- 6.8. Jendeek ez dute higieñez galde asko egiten janariaz izan ezik, eta batzutan edariaz.
- 6.9. Homeopatia eta placeboa kontzeptu desberdinak direla dio.

## 7. Zaharetxeen eta Ospitaleen kasua

Geronek urte luzeetan Zuberoan ikasitakoekin kapitulu honi sarrera egin genion, gizarte eta ekonomia arazoak kontutan hartuta, baina gaixoak etxean edukitzeko arduratzen diren andereek erakutsi didate, psikologia eta kultura elementuek, alegia euskal zibilizazioaren iraupenak Zuberoan egoera horiekin zerbait lotura zeukatela. Eskerrak haiei.

Horregatik zaharreria, eta bere gaitzak, edota bere higadurak kontutan edukitzeko orduan, eriotzbide hortan ahal bezain astiro ibiltzen direnez, aspaldian eta **Elhuyar-en** lehen bi aleetan, nahikoa idatzi nuen "Eriotza biologiarene ikuspegitik eta "Zaharreria". Ez nator berriz esatera hor ipini nituenak, eriotzaren ezagupideei, bizirik eusteari, zahartzeari buruz baina Axular-ek zaharren gaitzez diona gogoratzea on da.

### 7.1. Zahar gaixo handiak.

Zaharrak ezinduegi daudenean Zuberoan bizpahirur irtenbide daukate berek eta etxeok.

- Epe luzerako ospitaleratzea eta garesti da (Batza-besteko hilerokoa jubilatuen artean 70.000 pesta ingurukoa izanki, ospitalean edukitzea, bi bider kostatzen da). Halere "zaharra" beren etxean ezin dutenean hartu (kalean bizi eta etxe txikiegia dutenean haurrek) aurrideek, senideek, bakoitza bere aberastasunaren arauera ordaindu behar dute.

- Epe luzerako ospitaleratzea, familiarik ez denean, familiarekin hautsi egin denean eta dirurik ez denean. Segurantzak ordaintzen eta zerbaitxo baldin badu zahar gaixoak haren eriotzean Ospitalearen probetxu gelditzen da.
- Epe luzerako "etxean edukitzea". Hau euskaldun ohitura zaharrari egokiena da, nahiz segurantzak ez duen nahikoa "ohe" eskaintzen, eskaerak urtero gelditzen baitira, maiz, bete gabeak.

Azken modu hori gure etnografia lanari lotuenik dena dugu, gehienbat, aztertu eta bi andereek beren lana ondo ezagutzen eta maitatzen baitute, argiki eta zehatzki hitzegin didate, zalantzarik gabe ta tai gabe, luzaro erantzunaz eta gogozkatu ez nituen galderei, aurretik inardetsiz, beren lanaren aipatzean.

### 7.2. Zer gizarte mota?

Nekazari giroa da, nagusi kopuruan, eta orduan gazteak eta zaharrak teiltupe berdinean aurkitzen dira, orainarte. Gero fabrika langileetan ez da berdin, aurretik zahar-gazteak bereiz bizi dira, lanpide ezberdinak dituzte, batzutan elkarrengandik urrun bizi, eta garai batean Maulen eta Atarratzen behintzat "behargin" delakoek etxe bat eginarazten zuten, horregatik etxean geratzen direnean bakarrik daude, lagunarekin edo lagun gabe.

Eskulangile ta salerosleen artean etxeak haundiago direnean gertatzen da zahar-gazteak, elkarrekin edota hurbil bizitzea.

Estaduko funtzionari (zuberoeraz **kargüdün**) delakoak guttitan ikusten dira "etxean edukitzeko" sistema hortan; agian, elkarkidetasunezko zahartetze nahiko ederrak dituztelako, edota ausartzen ez direlako eske dirudian laguntza horren eskatzera.

### 7.3. Zer gaitz?

Hor ere etxe-sendakuntzaz galdeketa egitean ikusi dugun bezala eritasunak, gaitzak, ixtripu motak oso aldatu dira, tentsioak sortu paralisiak, bihotzeko minak, minbiziak ageriago izanki eta alkoholaren ondorioak gizonetan geroago ta ageriago direlarik.

### 7.4. Nola bizi?

Ezindua izan baino lehen, zaharra etxeokitzen da lotsatu egiten da bere indarrak eta gaitasunak txikiago direlako, gero, asko telebistari lotuak dira, ezin irakurtuz eta nekez kartakan aritzen.

Ospitaletxe eta benetako etxearen konparaketa

Zahartetxeetan ingurumenak gogobetzen ditu zaharrak etxean utzi baititu bere oroitzenak eta mundu txuri teklandu batean galdua baita, gainera lagunena ta auzoen gandik urrun; askotan, zahartetxea eriotzaren bidea izan liteke, beren gizartea galdu dutenez eta zahar batzuek laister hiltzen dira, holakoetan, bereiziki ta batikbat ezindutako ta epe luzerako zerbizuetan. Urte askotan Ospitaleetan ibili dena hobeki ohitu egiten sekulan edo gutti egon zaharra baino.

Leonie-k kontatzen digu aintziñako Mauleko Ospitaletxean zaharrak beren gauzeekin etortzen ziren ezindu izan baino lehen, beren bizitza hor bukatzeko familiarik ez zeukate-

nean. Gaurko, ordea, gelatxuri tekladuna eskaintzalea da, eta jendeen erdiak nonbait, orain, kanpotik etorritako erdal-dunak dira, hiriak ez baitu hor agintzen, Bordelek eta Parisek baizik.

Bi andereek esandakoen arauera, zaharrak hain gaizki, hain gaixo direlako ez dirudi etxe-sendagailuek zerbait deza-ketenik, baina badakite "Jainko txiki" ta "ezur-zuzentzailen" gana eramaten dituztela zahar elbarrituak, andereek ez dutelarik inolako kritikarik egiten, Sendagailuekin kontu egin behar dute "zahar eri laguntzaleek" ezen ez baitute jarramon egiteko kemenik, ahazkortzen baitira, eta erremedioak nahi-siz, nola nahi hartzen.

## ONDORIOZ

Argi dago, oroz gain Maddalen Karrikaburu-ren kasuan, zenbateraino eskolako erakasketek beren benetako eraginak izan dituzten eta nola XX. mendean, higiene, patologia eta osasunean egin diren aurrerapenak etxeetan eta sendaketa ohituretan sartu diren; bildur izateko da jakituri on ta berri horiek ez ote diren ahaztuko, ezen fakultateko gure ikasleen artean egin sundaketak erakutsi dit, orain hirurogei urteetako jendeek dakitena medikuntzan, osasunean gazteetan gutxi dakitela, sendagileak hor daudela hortarako gogoan.

Naski erdal aldizkarietan, eta andereentzat espresuki egindakoetan sendakuntza aholku asko dago, beharbada ere gehiegi, oinarrikoak, bazterretakoekin nahasten baitira eta etxean egin litekena, erizainek bakarrik egin behar deza-ketenekin batean emanaz.

Nire inkesta hortan, nire inguruko euskaldunak ikusiz, ez dut inon ikusi oraindik baserrietan Frantzia batzutan edukitzen den **Larrousse médical**, liburu lodia ezen jendeek ez badute gehiago euskaraz irakurtzen azken berrogei urte hauetan Zuberoan, frantsesa ere ez dute egiten. Beraz jakituri berririk etxeetan sartzeko bada - esan nahi dut herri-xehean, populuan - ospitaletik izango da gehien bat eta etxen norbaitek gaitz bereizia izan duelako eta arta zehatzak eduki. Halaxe, eta hori neskatilarekin ageri zen guraso zahar eta gazteek eduki "eritasunak" zituen hobekienik ezagutzen.

Berritasun bat baldin bada etxe-sendaketa hortan izango da, gaitzaz, eritasunaz bezainbeste osasunaz arduratzen dela, eta harriduraz konturatu naiz, nire beharrez bizpalaur mediku kontsultatu baititut Zuberoan ez direla gehiegi edo batere higiene ta osasunaz arduratzen, ez kezkatzen ere hobeki jaten, edaten, bizitzen erakasten denez ala ez; areta segurantzak asko irabaz lezake, aurrean horrekin: denek diote telebista dagoela hortarako eta aldizkariak, baina ez dute jende bakoitzari bizi aholkurik ematen, edo bestelan tankera hortako haukerak ematen dira zintzurako minbizi abioa daukanari

"tabaka ala alkola, bata edo bestea ützi behar düzü, bestelan lürpelako zira, dolore handitan".

Galdekatu ditudan guztiek esan didate nola gaurko bizi erosotasunak eta diruak jendea gehiegikeria guztietarat bultzatzen dituen: gehiegi jan, gehiegi edan, gehiegi erre; askok diote hortik datozela zahartze tristeak, burutik nahasteak, paralsiak, atsotzeak, eta minbizi batzu ere; beraz, agian, sendagileek arrazoin dute, jendeek auzoen eta beren etxe-koen gaitzak ikusiz ikas dezakete. Zoritxarrez gazteek,

gehiegikeriei ematen diegun mugak, oztopo, askatasun debekuak direlakoan, alderantzizkoa egiten dute: hori norma bada adin batean, gaitz bat bihurtzen da ohitura bilakatzen denean eta hori esan genezake Zuberoako gazteen alkoholismu harrigarria ikusiz.

Berriemaile guztiek esan didate, oraingo erremedio hobereenak ere, gehiegi hartuz pozoin bilaka litezkela eta horrek ematen du gogozkatzera, jendeek erositako sendagailu guztiak ez dituztela, osoki hartzen.

Etkez kanpoko sendakuntza horren konfidantza gabetasun hortan ere sar genezake, herabea, uzurtasuna sendagileen ikustera joaiteko, baina joan ezkeroko gutxitan ematen da ebakuntza bati edo ospitaleko arta bati ezezkoa. Gure familiar, ordea, eta ez bakarrik gure zuberotar aitarenean, gaitza ixilik, eta ez ongia aipatu gabe egoitea gertatzen da, garai hortako jendeentzat ideia baita

"badakik Ospitalean noiz sartzeko haizen, baina ezdakik noiz eta sekulan ere irtengo haizen".

Halere berrogei urteez goitiko baserriarren artean bereiziki eta lanpide txikikoen artean ere, joera berria dago; ez dira, gaitz txikientzat, etxeko sendakuntzaz askiesten, baina maiz sendagilearen gana dabilta edonoiz, egun batean pentsio eskatzeko eta lortzeko esperantzan (Santa Grazin, Xenta hauzotegian, gure etxeaz kanpo, etxe guztietan pentsioduna badago bihotzeko mina, tentsioa, alkola dela ta, beraz Atarratzeko medikuek sekulan bezain lanean dabilzan gizon andereak ikusten dituzte, beren pentsioek ematen dieten, aldikako bisita dohañen aprobetxatzeko; lotsagabeki mintzo dira gizarte parasitismo hortaz).

Gero argi dago, jai bat denean aspirina bat har eta ez direla gure herritarrek medikuaren gana joaiten, baina belarrak egiteko garaian, eta uso ehizearen garaian denak gaitzotzen dira, eta etxeko erremedioak ez aski.

Belarren erabilera etxe-sendakuntzan esan dezakegu, duela berrogei urte erortzen hasia dela eta jendeek ez dutela, askotan, ulertzen zergatik landare bitxi batzu sortzen diren baratze inguruetan. Gure Santa Graziko baratzearen inguru bat egiten dudanean ezkiña batean **Gaukar loreak (Viburnum opulis L.)** ikusten ditut iñõr guttik daki, andereen odol gaitzentat eta odolpausuentzat ona dela, gero beste ezkiña batean elkarren ondoan, **Nasailora Filipendula ulmaria L.** erreumientzat on dena, ta **Ariketa (Eupatorium cannabinum L.)** gibelaren sendagailu dena; noski, **ezkaia ta erreñotza** dira, saltsa hobegailu izatetik kanpo sendagailu direnak, este eta urdail aringarri. Gaur, **ezkia ta menta** gelditzen da jendeen erabilera nagusian: askotan farmazian erosten dituzte.

Nahiz ezagunak diren bentosak (godaletak) aiutak, labamenduak, enplastuak, kataplastak ez dira gehiago erabiltzen ez eta aspaldian sangratzeak; beraz erabili fisiko gehienak galtzen ari dira, eta indizioak eta pilulek lekua hartzen. Atzo, oraino lehengusu batek esaten zidan 1920. urtean ikusten zela linoazia ereiten etxeetan ez oihalaren egiteko, kataplasma eta enplastuen konpontzeko baizik.

Galdu direnak ere unkenutak, pomadak, eta olioak izan dira; ardoarekin egindako azkargarriak bai ezagunak dira, eta gehienak sangria modukoak dira, hotzik, gero katarruetan ardo eta ron berotu edo erreak.